

+ Anaitasuna

V URTEA - N.º 50

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Garagarrilla (7) 1958

“Anaitasuna”-ren Eguna

Naziño osoan ospatu zan San Pedro eguncan, Espaiña-ko Prensa ta Informaziñoaren Eguna. Ori dala-ta, berbaz, eskribuz eta radioz alegin aundia egin zan erri guztietan, kristiñauak jakin daien zelan dagoan Espaiña-n Prensa Katolikoa, eta zer egin bear litzaken Prensa ori gero ta obeto jarteko.

Eleizearen Estadistika ta Informaziñozko Ofiziña Generalak diñoan lez, ia millara eltzen dira Espaiña-ko publikaziño katolikoak, eta urtearen buruan 100 milloi ale gitxienez zabaltzen dira.

Eta alan ta guztiz-bere —begien vistan dago—, Espaiña-ko Prensa Katolikoak indar gitxi dauko naziñoako goraberetan, eta influentzia eskasa kristiñauen bizimoduan.

Zegaitik ori? Madrille-ko «*Dida Nueva*», amabosteroko periodikoaren ustez, bi dira egokera orren kausa printzipalak: leenengoa balio bako publikaziñoen larregikeria, eta bigarrena prensa on bat eukiteko dirurik eza. Eta erremediotzat eginkizun bi akonsejetan ditu: geldí geldíka publikaziñoak gitxitu, eta prensa onari gogoz eutsi.

Eta zein da Euskerazko Prensa Katolikoaren egokerea? Zetan esan-bere ez, erderazkoarena baiño askoz txarragoa, ia ia prensarik be ezdaukogu-ta.

Gauza luzea izango litzake, editorial onetan egokera triste orren kausa guztiak azaidutea. Gaurkoz naikoa izango da, «Anaitasuna» zelan dabillen esatea.

Oraintxe dira bost urte, orritxu au ataraten asi gífieala. Gure asmoa auxe izan da beti: euskera erreza ta argia erabilli, erriak lez berba egin, erriarentzako idatzi, gentearen artean euskeraz irakurteko oitu-

rea sartu, etorkizuneko euskaldun prensari bidea zelan edo alan preparatu.

«Anaitasuna»-ren leenengo numeruan, gure asmoak adierazota gero, auxe esan genduan: «Ez da au naikoa asteko? Geroago, eukiko dogu demporea, gure izkuntza maitea orraztuteko, txukunduteko, apainduteko, garbituteko. Orixe-k esan dauan lez, «euskera gaixoak operaziño asko daukoz egin bearrak, eta guztiak batera egingo bageuntsoz, il egingo litzake» (Meza-Bezperak, X).»

Askok ontzat artu ditue gure asmoak, eta cureq txalo eta berba onakaz animatu egin gaitue aurrera joateko.

Beste asko barriz, ez dagoz konforme gugaz, batez-bere erdal usaiñeko berba asko erabilten dogulako.

Zer egingo dogu ba? Danok maite dogu euskerea, danok gura dogu betiko bizi daiten. Orretarako, gure ustez, momentu onetan erriari aoiantxe idatzi bear jako, bestela ez lenskigu irakurriko-ta.

Uste dogu emen, orritxu au egiten dogunok, Bermeo-ko euskaldun erri onetan bizi garcanok, bertoko euskerea gau ta egun erabilten dogunok, erri biñgual aundi onetan erderazko oiatuaren kontra pelikada izugarrian gabiltzanok, Bizkaiko errietan etxerik etxe euskerearen alde oles egiten ibilli gareanok; uste dogu, euskaldun irakurleen aldetik komprentsiño ta laguntasun apurtxu bat mercezi dodula. Besterik ez dogu eskatuten, orixe baiño. Eta parkatu deiskuela, lantzean bein gure zirikadakaz ifior zauritu badogu.

Olan gure orritxu au gero ta obeto ibiliko da, eta euskerearen etorkizunari nasaitu eta zabaldu egingo jako bidea.



EUSKAL BASERRIAREN ETORKIZUNA

Arantzazuko Goiz-Arği
errevistatik bizkaieraztua

Gure baserritarra kezka**z** beterik bizi da, eta bere buruari askotan **pregunta** au egiten de**utso**: Konveni ete jat baserrian jarraitu-**tea**? Klean ez nintzake obeto biziko? Ba-**serrian** nagoan bitartean, inoiz biziko ete naiz ondo, nasai eta aberats?

Asikera asikeratik, baietz esango de**utsat** baserritar fiñari.

Orretarako, ara nire ustez zer egin bear dan: Beitokia ondo ja**gon**, sagastiak eta fruta arbolak arduraz zaindu, oillatoki on bat ipiñi, ortu zati bat ondo ja**gon**.

* * *

Beitokia ondo ja**gon**, esan dot lenengo. Orregaz zer esan gura dot? Gaurko egu-**nean** dagozan adelantu geienak, diru geiegi kosta barik, gure baserrietan danak ipiñi leitekez. Kortak txukundu egin bear dira lenengo; argiak izan bear dabe, garbiak eta errez aizebarriztuten direanak. Olako leku atsegin baten dagozanean, beiak askoz pro-**betxu** gei**ago** emoten dabe.

Kortea txukunduaz bakarrik, ezin esan gein**ke**, beitokia ondo jagonda dagoala. Ja-**nari** egokia emon bear jako ganaduari. Im-**portantzia** aundikoa da au. Alperrik eukiko doguz bei ederrak eta leku txukunean, gero ja**nari** egokia eta bear dan bestekoa emoten ez badeutsegu.

Ganaduak bear dauan ja**nari** ori emoteko, lurra analizetan asi bear dogu; olan jakingo dogu, gure lurretan zer falta dan, karea ala nitrogenua, potasea ala fosforua. Lurraren analisi onek erakutsiko de**usku**, ze ongarri eta abonu bota bear de**utsagun**. Olan egiten danean, lur orreetatik datorren ja**naria**, indartsua ta ona izaten da.

Orañarte esan doguna egin ez**kero**, bada**kigu** gure ganaduak jaten dauan ja**naria** ona dana; baiña ori ez da naikoa. Zenbat jan bear dauan ikasi bear dogu: bestela, ba-**liteke** geiegi edo gitxi**egi** emotea, eta bai bati eta bai bestea txarrak dira. Janari ona

eta bear dan bestekoa emon ez**kero**, ganadua indartsu, osasuntsu eta probetxu aundikoa izango da.

Probetxu aundia atarateko, ganadu ona euki bear. Alperrik txukunduko doguz kortak eta ukuilluak; alperrik emongo de**utsa**gu ja**nari** ona eta naikoa, ganadu kasta txarra badaukagu. Gogoan euki au: bei on bik, lau txarrek baiño probetxu gei**ago** emongo de**utsue**.

Beitokia ondo jagonda dagoala ezin esan gein**ke**, zortzi bei mantenidu leitekezan ba-**serrian**, lau bakarrik mantenietan badira. Azkenengo urte biotan egin direan aproba-**detan**, auxe ikusi da Gipuzkoan: Doble ga-**nadu** mantenidu leiteke, bedartzak ondo ja-**gon** ez**kero**. Erdira jota, lau hektarea lurreko baserriak dira geienak Gipuzkoan. Lur or-**regaz**, ondo mantenidu leitekez zortzi bei eta euren txalak.

* * *

Goazan orain, danori gustetan jakun le-**kura**. Zenbat diru atara bear leuke baserri-**tarrak**, esan doguzan gauza guztiak egin ez**kero**?

Ez naiz goregi joango, baiña ez beeregi be. Jarri daiguzan zortzi bei eta sei txal. Beiak be, ez doguz on onak ipiñiko. Ba-**dagoz** urtean sei milla litro emoten ditue-**nak**. Jarri daiguzan orren orde**z** lau milla litro urtean; zortzi beik, 32.000 litro, lau pesetan: 128.000 peseta. Sei txalak, ogeta-**amabost** erralde**gaz** saltzen doguzala kon-**tuak** atarata, erraldeko bederatzi ogerlekoan 9.000 ogerleko urtengo dabe. Guztira, esne-**agaz** eta aragi**gaz**: ogetamabost milla oger-**leko**. Pentsotan amar milla ogerleko gastatu ez**kero**-bere, ogetamabost milla ogerleko gel-**dituten** jatzuz.

Onez**kero** esan dozu zeure kitan: orreek guzurrak egiak balira! Guzurrak? Zegai-**tik**? Beitokia zelan daukazu? Janari ona daukazu ganaduarentzako? Bear dan beste emoten de**utsazu**? Bei kasta ona daukazu?

Sagastiak eta fruta arbolak atatu doguz bigarrén. Baserriko aberastasunik audiene-tariko bat izan leiteke auxe. Zenbat baserri-tan ete dagoz berreun sagarrondo baiño gei-ago? Baiña onak zenbat? Egin daigun, ondo jagonda dagozala. Arbola bakotxak berro-getamar kilo emotea ez da asko. Guztira: amar milla kilo; kiloko bost peseta, amar milla ogerleko dira. Larregi dala? Zoaz Baiona ondoko Lehontza errira, eta ango sa-gastiak ikusita, berba egingo dozu.

* * *

Baserritar asko dira, oilloak ez dabela ezer emoten sinistuten dabenak. Eta benetan, eu-ren etxeetan pasetan dana ikusita gero, eu-ri errazoa emon bear. Baiña, urtean laro-gei arrautza ipinten dituen oilloen ordez, ja-ri eizuz oillatoki txukun baten, janari ego-kiagaz, berreun arrautza urtean ipinten di-tuen kastà oneko oilloak, eta ikusiko dozu zenbat diru emoten daben. Gaurko prezio-etan, oillo batek jaten dauan janaria, bede-ratzi-amar arrautzagaz ordainduten da. Ur-tean eundaogei arrautza bear dira ba, jana-ria pagetaño; larrogei arrautza bakarrik ipin-ten baditue, galdu egiten da. Egia esateko, baserri askotako oilloak ez dabe pentsotan ainbeste gastetan. Oillo bakotxetik berro-getamar arrautza libre geratuten direala, eun oillogaz bost milla arrautza, iru pesetan, amabost milla pèseta. Ona emen, baserriko etxeoandra eta emakumeentzat, zeregin aundia.

* * *

Ortu zati bat ondo jagoteko esan dot az-kenengo. Nok ez daki ortuariak egiten da-ben prezioa?

* * *

Au dala ta bestea dala-ta, kontuak atara-ten badozuz, baserrian urtean berrogei milla ogerleko libre atara bear litzakez. Kaletarre-ri asko irudituko jake, baiña beti gogoan eu-ki bear da auxe: baserritarra, bere baserri, ganadu, tresna eta enparaduakaz, kaleko fa-brika ugazaba batelakoa dala, eta ez beargin baten antzekoa. Eta kaleko fabrika ugazabak ez dabe, askok beintzat, urtean berrogei mi-lla ogerlekoak irabazten.

Manuel Onaitia

Zarautzako Baserriarriol

Lurra analizatu

Gure baserritarrak jakin daien zer dan lurra analizatutea, ona emen zer diñoan gizon jakintsu batek, baserri biko lurra analizatu ostean:

«Edozein labore egiteko, azido asko dauko zure lurrak. Orain dagoan lez, patatea, azea, naboa eta tabakoa emon leikez zure lurrak. Baiña geiago emongo leuke, area bakotxean amar bat kilo kare bota ezkeru.

Garia, artoa, zentenoa eta orrelakoak egi-teko, kare apur bat geiago bota bearko litzake. Erremolatxea eta ortuariak artzeko, ogei bat kilo kare. Alfalfa, frantses be-darra, babak, idarrak eta onelakoak egi-teko, 20-tik 30 kilo kare bota bearko li-tzakez, ondo etorteko.

«Zianamida kalzika» erabili bear zeunke, zure lurrari azido larregi ori ondo kentzeko, eta nitrogenoz orniduteko. Orixe egin bear dozu, batez-bere bedar ona ta ugaria euki gura badozu. Zure lurra gero ta obeto ipinteko, bi edo iru urtean bi edo iru kilo «zianamida kalzika» bota bear zeunskiozu area bakotxean.

Zure lurrak fosforua be eskas samar dau-ko. Orregaitik kilo bat-edo «Escoria Thomas» bota bear zeunskio area bakotxean.

Baiña beti ardura aundia artu bear da, onek gozagarriok botetan dozuzanean. Oba dozu urte bian egitea, eta bakotxean ikusi zo on egiten deuten lurrari. Kontuan ebeko bear dira gauza asko: lurraren bustia, mo-raiño eltzen dan lurraren onurea. Bestelag abonna edozelane bota ezkeru, errezugaldu leiteke, karuerosita gero.

«Zianamida kalzika» ori zure lurrari bota bear badeutsazu, kontuz ibilli, yenezozkoa da-ta. Min egin leikizu, begietan, agoan eta ometan egin leikezan zauriakaz.



EMAKUMEAREN TZAKO



Mari Begoña'ri

Ondo dakizu, ori ez dala zure benetako izena. Neuk emon deutsut izen ori, nor zarean inok igarri ez daian.

Zeure karta orretan diñostazu, zelan izan dan maitasunezko zeure lenengo frakasua. Eta gauza onen gainean zeredozer idazteko diñostazu «ANAITASUNA»-n, zeuretzako eta beste neska gazte askoren onerako.

Ez dira gitxi, zure antzera, ilusiño guztiak galduta, naibagez beterik bizi direanak. Alan ta guztiz-bere, zure karteaz ez dator negarrez, ez dator zotinka. Agiri da, zure laprastada orretan ez dozula galdu humore ona ta, batez-bere, zentzuna. Eta garbi garbi diñozu, mutil orregaz ez ziñeala zoriontsu izango.

Dana dala, ezin ukatu zeinke, laprastada orrek biotza pixka bat astindu deusula eta min apur bat emon.

Seguru, ama ta amama ta izekoa etorri jatzuz esaten: «lenengo maitasuna dala egiazkoa». Eta esakera ori —fundamentu bako esakerea— aintzat artuta, or zabiltz osasuna-bere galtzeko moduan, zoritxar aundi baten azpian jausi baziña lez.

Lagundu deizudala eskatuten deustazu. Zelan baiña? Neska-mutilen artean maitasunak zelan izan bear dauan argituko deutsut. Gero, eurak zelakoak izaten direan. Eta azkenik, novioen arteko artu-emonak zelakoak izan bear daben. Onek gauzatxuok jakin ezkeru, barriro beste bategaz asten bazara, suerte ohea eukiko dozula uste dot.

* * *

Zure kartan ikusten denez, gauza batzuetan oker zagozala esan bear deutsut. «Ikustekoa zan —diñozu— noraiño altzetan ninduan berak. Ni lako neskarik ez egoan mundu guztian: ain ona, ain polita, ain espirituala. Eta, jakiña, nik dana siñistuten

neutsan, eta bera be ñeure antzekoa zala uste neban.»

Ondo dago, Begoña; baiña ez zenduan aztu bear, maitasuna argi dirdira bat lez dala. Argi orretan, maite laguna grazia guztiakaz apainduta ikusten da. Eta ori ez dago txarto, bear dan neurrian egiten bada. Gaiñorik gagozanean be, kalenturea gauza ona izaten da, odolean daroagun gatxa jakiteko. Baiña 39 gradutik gora dabilenean, mediku billa joan bear izaten da, gorputzeko berotasun larregia baja eragiteko.

Bardin pasetan jatzue maitasunezko gauzetan-bere. Sarritan, amodioaren pasiñoagaz amesetan asten zaree, maite laguna larregi goratuten dozue, itsutu egiten zaree, eta ez deutzazue ezetariko faltarik ikusten.

Arraiatik gora pasetan danean, neurrira jatsi bear da. Guztiok gara aragizkoak. Guztiok daukoguz geure argaltasunak, geure defektuak, geure utsunetxuak. Novio-noviak bardin. Orregaitik, ezkondu orduko, ezagutu egin bear ditue ondo alkarren prenda onak eta txarrak. Eta amodioa egiazkoa bada, utsune guztiak gorabecra, seguru segurutik leu baiño geiago maite izango dabé alkar. Orduantxe izango da maitasuna benetakoa, sendoa, gogorra, mundu guztiaren esamesakaitik bapere ardura ez deusona.

* * *

Zure bigarren errakuntzea zetan dagoan esango deutsut orain. «Nik uste dot —diñozu kartan— eurak euren buruari ez deusela geuri baiño geiago begiratu bear. Nok esango leuke! Beti euren alkondarea eta euren jerseyia, beti euren ule opraztua eta euren praktarra... Orreexek dira euren ardura guztiak. Eta gu?»

Ez, Begoña. Bide orretatik ez zoaz ondo.

Bere buruagaz aztuta, zeugaz bakarrik pentsetan dauan gizona gura badozu, oker zoaz. Gizonak alantxe dira euren izatez: egoistak. Ez direanean, au da, euren zoriona baiño iñorena naiago dabenean, ori Jaungoikoaren aparteko doj bategaitik izaten da. Egoismoa, gizona artean defektu natural bat da. Emakumeen artean barriz, pekatu aundiagoa ta astunagoa. Auxe da egia, eta emendik atara noraiño eltzen dan geienetan gizon baten desinteresa, neskatilla bategaz asten danean.

* * *

Irugarren ekivokaziñoa: novioen arteko errelaziñoen gaiñean pentsetan dozuna. «Ezin leitekio iñori konfiantzarik emon —diñozu zure kartan—. Bategaz asi, ta illabetegarreanean beste bategaz doaz. Eurak ez dabe gaitzen, eta geuk-bere ez dogula galtzen uste dabe. Lau illebeteen ibilli gara, eta jan egingo ninduala esan eiteken batzu batzutan: ain zan aundia nigana sentietan eban pasiñoa. Baiña orain beste bat topatu dau ni baiño *politagoa*, ta...»

Ondo diñozu, Begoñatxu. Baiña ez ikaratu esango deutsudanagaz. Eurak dauke errazoa. Ondo egiten dabe, euren eritxia kambietan dabenean. Ondo, novia bat itxi eta beste bat artzen dabenean. Izan-bere, orrextarako dira ezkongeeien arteko errelaziñoak. Matrimoniñoa, gauza serioa da. Betirako da. Askatu eziña da. Bein ezkondu ezkeru, ezin leiteke biurtu atzera. Noviazgoa be, ezkontzearen antzekoa izan daitela gura dozu? Askatu eziña gura dozu? Betirakoa? Ez, ba. Ez eizuz gauzak euren lekutik atara.

Jantzi bat ikusi dozu denda baten. Sartu zara barruan. Probatu dozu. Begiratu zara ispilluan, eta ikusi dozu txarto emoten deutsula. Zer egiten dozu orduan? Itxi bertan, eta beste jantzi baten billa joan. Orixe berori egin bear dabe, ezkondu orduko, novio-noviak. Ezkongeeien arteko artu-emoiak orrextarako dira. Ez jatzu gustetan bera? Itxi. Ez zatzakoz gustetan berari? Bardin da. Itxiten bazaitu, ondo egingo dau.

Bai, ba-dakit. Onk min egingo deutsu bietzean. Baiña pasatuko jatzu. Emon demoreari zauriak osatuteko ardurea. Laster osatuko zara.

Eta ez pentsa «lenengo maitasuna dala ouena.» Edo bai: pentsa ori, baiña benetakoa danean. Eta bearbada, «lenengo maitasun» ori, azkenengo novioak emon deutsuna da.

* * *

Ez dakit, baiña bildur naiz, karta onetan gogortxuegi izan ete naizan. Asmoa beifnik bein, gauzak argi esateko euki dot. Egia alantxe da sarritan: gogorra. Jaungoikoari eskerrak, alantxe dalako. Egia gogorra dalako ibiltzen gara seguru, berari ondo eutsita, jausi ez gaitzean. Bideari, trenbideko errailleri zer eskatuko deutsegu? Gogorrak izan daitetzala. Gaztanberazko erraille gaiñean ez giñake iñora joango.

Aingeru

ABERASTU ZURE EUSKERE A

Ona emen, ANAITASUNA-n agerturiko berba batzuk:

ALBISTE, notizia, barria.

ANALIZATU, desegin gauza bat, bere parteak estudietako edo zer direan jakiteko.

AREA, amar metro kuadradoko neurria.

BEREBIZIKO, egokia.

DESTAÑA, despezioa, erderazko *desdén*.
ERASO, impresiñoa egin. *Eraso egin eutsen nire berbak.*

EZTABAIDA, dueda / diskusiñoa.

GARERDIKO, sasoi oneko gaztea, gara erdira eldu dan gizona.

GUDATALDE, ejerzitua (berba barria).

HEKTAREA, eun areako neurria.

IDATZI, eskribidu (berba barria).

IRAUN, duraziñoa euki, erderazko *durar*.

ITAUNDU, preguntatu; gipuzkerazko *gal-detu*.

JARRAITU, segidu.

JATSI, bajatu.

KEZKA, errenkurea, buruaustea, preokupaziñoa.

KITAN, barruan. *Onezkero esan dozu zerre kitan.*

MARATZ, arduratsua, jaso, beargiña.


NEURRI, medidea.

OLES EGIN, deitu.

SAGARRONDO, sagar arbolea.

ZAPI, trapua, oiala.

ZERU, aingeru ta santuen tokia / eleizako palioa.



AASTE - BORRASTE

Karakolak eta bareak

Gabon inguruko astelen-merkatuak, ikustekoak izaten dira Gernikan. Oillasko, kapoi, sagar-madari ondo baiño obeto zainduak eta konpotak egiteko berebizikoak, in-txaur, oillagor, angula, erbi, karakol, eta abar.

Oñetarikoxe astelen bat zan; eta beste jaki askoren artean, Kortezubiko Madalen andratxu garbi eta maratzak, zapitxu bete karakol eukazan.

Oraindiño Gernikara etorribarri zirean-eibartar armeru mordo txiki bat aurreratu jakon, eta ezetariko eztabaida barik, karakolak erosi eutsiez an.

Euretariko langille batek baiña, erdi destaiñaz, erdi irribarrez itaundu eutsan:

—Eta merkatura, eztozue barerik ekarten?

—Bareak saltzen merkatura? Ez orixe! Orreek eztira jatekoak.

—Eztireala jatekoak? Karakolak baizen onak bai; eta gaiñera, urdaillerako-ta askoz be egoki ta osasuntsuagoak. Gure errian ondo gozo eta pozik jaten dira.

—Eztot ba nik iñoiz entzun olakorik.

—Ez? Ba aolantxe da. Ekarriko zeuskidaz datorren asteleean zapitxu bete?

—Bai, pozik bere. Ekarrri ez, ostera!

Eta esan eta egin. Gure Madalen-ek ekarrri zituzan bareok, eta... bai eibartar langi-

lleak eskatu eutsone ordaindu, eta pozik antzera eroan be.

Laster zabaldu zan, merkatura etorri zirean-andratxuen artean, Madalen-ek egin eban bare-saltze orren albiste; eta urren-go astelenean, andra bakotxak an eukan bere aurrean barez beteriko zapi zuria. Eta zelako bare guri guri, garbi ederrak! Gordin gordiñik jateko modukoak!

Baiña orduak joan eta orduak etorri, bare-merkataririk ez zan iñundik agiri, eibartar langille azkarrak, euren zitalkeriaren azken barregarria pozik ikusiaz eta erdi ezkutan, an ibilli arren.

Eta illuntzean, merkatura amaitu zanean, plaza ederraren zabal-luzera guztian ez zan barea ta barea baiño besterik ikusten. Eta oraindiño urren-go goizean, kalegarbitzailleak guztiz arriturik egozan, nundik-norako bare gudataldea ete zan a:

Dana dala, bestelako garbitasuna emon eutseen euren ortu eta soloeri Gernika inguruko andratxu zintzo eta siñiskorrak!

Aintxiñatxutik esaten da emeni, badaezpadako edo andik-ortiko bi alkarregaz ikusten direanean:

*A zelako parie,
karakola ta' barie!*



V A L E N T I N

BERRIO-OTXOA

DOATSUAREN

K A R T A K

XI

Ocaña-tik, 1856

Neure amatxu maitia:

Berorren letrak gustoz leitu nituzan; baiña gusto andiyaguaz aitzen emoten eustan, berorren trabajutxuetan Jaungoikuaren vorondate santuarekin konforme eguala.

Bai, amatxo: Jaunaren eskütik datorrena, esku onetik dator, eta graziyak emonagaz artu biar dogu.

Santa Monika-ren egunian, gutxi gorabeera amazortzi urteko fraile gaztetxo bat il jakun; eta ilda gero, barrezka eguala esan zeikian. Bat ilten dan ordutik eta enterratu artian, gabez eta egunez frailiak erreztatzen egon dira difuntuaren onduan, momentu baten itxi barik.

Maria Santisimiari euki biar deutsalagu devoziño andiya, bada bera da geure ama gutiz laztana.

Gorantziyak lengusiñiari, eta asko alegratzen naizala ondo laguntzen deutsalako.

Agur, amatxu. Santa Ana-ra doianian, Aita Santo Domingo-ri erregu beiyu, bere egiyazko semia izan nadin. Agur.

Valentiñek

XII

Cadiz-tik, 1857

Neure guraso maitiak:

Egun gutxi pasatu dira neure azkenengo kartia eskribitu nebala; eta karta artan

prometidu neban bezela (1), artzen dot gaur plumia berriz-bere eskribituteko.

Nolan (2), neure guraso maitiak, Jaungoikuari eskerrak emongo deutsalaz, egin deustazen mesede guztiakgaitik? Mündu gaiztuaren atzaparretatik libratu ninduan bere miserikordiazko beso senduagaz, ni baiño pekatari txikiyaguak peligruaren erdian itxiten zituzela.

Eta zenbat grazia ugari neure arima eskergabekuari (3) biñdu deutsalaz errelijioko portu seguruan?

Eta gutiz gutxi balitz bezela, bere apostolutzat eskogitu (4) ninduan, bere bekokiko izerdiyagaz, bere zanetako odol preziosuagaz eta bere eriotziagaz erositako animak irabazteko; eta neure vokaziñuari erantzuten badeusal, sekula gutzietan izar argi bat bezela zeruan egoteko.

Zer emongo deusal bada nik neure Jesus maitiari? Neure bizitza eta naizen guttia, beriak izan biar dau (5). Eta zer grazia, ze eskerrak emon biar deutsez berok-bere (6), seme bat eskogitu dabelako zeruan eta lurrian dan dignidaderik andiyenerako?

Gurasorik asko arrotuta bizi dira, munduko konde edo markesen batek bere pajetzat eskogitu dabelako bere semen bat; eta pozez txoratuta egon oi dira (7), katanarrua sendotzeko esperantza bategaz.

Ze arrotasun santua bada euki biar eztabe berok (8), konde edo markes gutziyen Jaubiak bere etxeko mayordomutzat, zeruko atien itxi-eregitzailletzat eskogitu dabelako beron (9) seme bakarra?

Biotz gutzitik bada eskiñi beiyu Jaungoikuari seme triste au, Abraham Patriarka

santuaren oiñatzañ jarraitnagaz. Uste dot ze, entzuten nagola berorren agotik: «Jauna, zeuk emon deuskuzu Valentintxo, bada geuk-bere zeuri eskintzen deutsugu; egin eizu beragaz nai dozun guztia.»

Nun nagola uste dabe, nere guraso maitiak? Cadiz-ko katedralian atzo meza nagusiya entzun neban; eta konventuan banego bezela nago eskribitzen karta au itxasuan, Cadiz-ko vistan. Atzo zortzi, goizian, konventutik atera (10) giñan lau sazerdote eta lau diakonu Prokuradoriaren laguntasunagaz, eta urte barri goizian allegatu giñan Sevilla-ra.

Emendik urten genduan zapatu goizian itxasoko vaporian, eta illuntziko allegatu giñan Cadiz-era; baiña ez giñan zitudian sartu, ezpada ensegida etorri giñan lantxa baten barku onetara; eta emen gaoz ordu lauren edo ordu erdiyen distantziyan Cadiz-tik, eta emen egongo gera amabost egun edo geiyaguan, gentia etorri artian, eta partikularmente berrogei Fraile Frantzisko.

Guztiz gente ona da barkuaren nagusiya; eta kapitana, bizkaitarra da, gizon formala eta frailien adiskide andiya. Barkuko biargiñak Indiya-ko gentia dira; arpegiz kobriaren kolorekuak, baiña guztiz servitzari onak. Barkua palazio bat bezelakua da, eta sala guztiz ederrak daukaz. Sevilla-ko zitudade andi eta ederrian baiño kontentuago nago emen.

Ezpeiye bada ezer-bere kuidadurik cuki nigaitik; ezer-bere eztxat niri falta; baiña gauza guztien gaiñan estimatzen dodana da daukadazen lagun eta erreligioko anaiak. Alperrik gera provintzia askotakuak: iru katalan, bi valenzianu, mantxegu bat, kastellanu bat eta ni bizkaitarra; alkarri geiyago nai deutsagu aita baten semiak baiño.

Leugo eguneko kartan ez neutsan ezer eskribitu viagiaren gaiñan, zergaitik-eze etxetik urten artian ezta kigu guk gauza zientorik; eta amalau ordu urten baiño lenago eznekiyan noiz gendozen (11) eta, birian parau artian, ze kamiño eruango genduan. Ardura guztiyak erreligiñooko nagusiyan lepora botata daukaguz; eta berak (12) dauke gare kuidaia, gurasorik onenak bezela.

Nere lagunak eta nik, eztaukagu apurrik itxasuaren bildurrik, eta aian pozez beterik gaaz guztiyok, mundutarrak kasa-kampo batera divertitzen dioazen bezela. Letratxo bi eskribituko deutesoz (13) Filipina ne urte

tzeko vezperan, derrepente ezpada urteria.

Eta karten bat eskribitu nai badabe emen nagan artian, modu onetan ipiñiko deute sobria:

Al Padre Fray Valentín Berrio-Ochica, misionero Dominic, a bordo de la Bahía de Cádiz.

Eta onen gaiñan beste sobretxu bat modu onetan:

Andalucía. Sr. Don Ignacio Fernández de Castro, del Comercio de Cádiz.

Eta ostantzeko kartak, Ocaña-ko kolegiyora neure sobriagaz edo kolegiyoko nagusiarentzat. Gorantziyak nere lagun guztiai eta senidiai, partikularmente Mari-ri eta osaba frailiari. Nun dagan jakin banen, eskribituko neutsan.

Agur, bada, neure guraso maitiak; askok bialtzen ditu bere semiak Indiyetara, iur pixka baten atzian; beron (9) semia-bere Indiyetara doia, ez urriaren eta zidarraren billa, ezpada zeruaren billa, beretzat eta beste batzuentzat.

Erregutu beiyue Jesus maitiari eta Ama Virgiñiari, ezteidela faltatu beren amparua. Misioneruok-bere, etxetik urten baiño lenago kantau genduan Errosarioko altaran meza eder bat; eta eztaukagu beste bildurrik, ezpada pekatuan erortia (14).

Agur. Erregen vezperia da gaur.

Valentiñek

- (1) Prometidu neban lez.
- (2) Zelan.
- (3) Eskerbakuari, eskertzarrekuari.
- (4) Eskogidu, elegidu.
- (5) Neure bizitziak eta naizen guztiyak, be-riak izan biar dabe.
- (6) Eurok be.
- (7) Egoten dira.
- (8) Eurok.
- (9) Euron.
- (10) Konventutik urten genduan.
- (11) Gentozen, etorriko giñan.
- (12) Eurak.
- (13) Eskribituko deutesdaz.
- (14) Pekatuan jaustia.

LAGUNARTEKO MEZEA

(Misa dialogada en Vizcaño)

Aita Imanol Berriatuak egiña

Bigarren ediziñoa

Foilletu bakotxa: 3 peseta — Ogeitik gora 2,50

SALGAI:

Librería Verdes, Correo, 7, Bilbao
PP. Franciscanos, Bermeo, Vizcaya